



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko irailaren 5a

95. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa taxutzerakoan hizkuntza-eskubideak bermatzeko erabilitako irizpideei buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arte grafikoaren sektorearekin lotutako lehiaketak arautzeko oinarrietan klausula batzuk sar ditzan, Nafarroako Arte Grafikoaren Hitzarmeneko lan-baldintzak errespetatu daitezkeen, eta zuzeneko esleipenetan baldintza horiei euts diezaien. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu dute (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da konpromisoa har dezan posta-zerbitzu publikoa defendatzeko. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da langabezia-sorospena zabal diezaien iraupen luzearen langabezia-egoeran dauden pertsonen, diru-sarrerarik ez badute eta familia-erantzukizunak badituzte, bai eta gizarteratzeko berariazko zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuei ere. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekintzailatza sustatzeko neurriak har ditzan, izapide administratiboak erraztearen, Nafarroako enpresen esportazio-gaitasuna sustatzearen eta Foru Komunitatera kanpoko inbertsioa erakartzen eta dagoenari eustearen bidetik. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan ikastetxe publikoetako zuzendarien hautespenari buruz. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da testuliburu eta eskola-materialen kontrola susta dezan, LOMCE legea Nafarroan ezartzea dela eta. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da errefusa dezan Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko Lege Organikoa dela-eta PPK proposatzen duen aldaketa, alkateen zuzeneko hautespena bermatzen duena. Maite Esporriñ Las Heras andreak aurkeztu du (14. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da behar adinako finantzaketa berma dezan udal jabetzako haur eskolek kalitatezko zerbitzua eman dezaten, eta udaletako berdintasun arloko zerbitzuak eta programak finantza ditzan. Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da San José zentroko aste bitarteko zaintzaileei aplikatu diezaizen urteko 1.457 orduko lanaldia. Gizarte Politiketako Batzordeak bazter utzia (16. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroan Gizarte zerbitzuen zentroak eta baliabideak irekitzea eta abian jartzea baimentzeko oinarriak arautuko dituen estatu-araudiaren aurreproiektuaren ondorioei aurre egiteko garatuko diren ekin-tzei buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Amma Taldearekin sinatutako hitzarmenean araututako zerbitzuengatik Oblatasko Zentroko erabiltzaileen familiartekoei ustez kobratu izanari buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Nazioarteko Lankidetzaren arloko politiketan gertatuko diren aldaketei buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Errusiako Gobernuak Europar Batasunetik heltzen diren elikagaien inportazioari ezarritako murrizketek Nafarroako nekazaritza-industriari eraginen dioten kalteari buruzkoa, M^a Carmen Ochoa Canela andreak egina (19. or.).
- Galdera, Cultur 2014ko jarduera-programak gaztelania hitzez banatzearen arrazoiei buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (20. or.).
- Galdera, ikastetxeetako zuzendaritza-eginkizunetarako hautagaitzarik ez egoteari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (20. or.).
- Galdera, Musikako Gradu Profesionaleko eta Goi Mailako piano-jotzaile errepertoriaren espezialitatean aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak egiteko erabilitako irizpideei buruzkoa eta Estatuko Gobernuak musikako goi mailako irakaskuntzei eta irakaskuntza profisionalei dagozkien espezialitate berrietako gaitegiak argitara eman ditzan egin diren kudeaketei buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egina (21. or.).
- Galdera, animaliak babesteari eta ikuskizun publikoei buruzko foru araudian ezarritakoa betetzeari buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egina (22. or.).
- Galdera, udaldi honetan Nafarroako osasun-sistema publikoan ospitale-ohreak ixteari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (22. or.).
- Galdera, “Proposamen fiskal integrala” lan-agiriari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (23. or.).
- Galdera, balantza fiskalei buruz Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak egin duen txostenari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (23. or.).
- Galdera, NA-5100 (Garinoain-Leotz), NA-5110 (Puiu-Lergako gaina), NA-5154 (Uzkieta) eta NA-5163 (Santsoain) errepideen konponketari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (24. or.).
- Galdera, udaldi honetan Nafarroako osasun publikoan ospitale-ohreak, solairu erdiak eta operazio-gelak ixteari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (25. or.).
- Galdera, Iberdrolako akzioak saltzeari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (25. or.).
- Galdera, diru-bilketa fiskalari buruzko informazioa emateko erabilitako “diru-bilketa likido” eta “diru-bilketa garbi” kontzeptuei buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (26. or.).
- Galdera, Urdazubiko Alkerdi marmol-harrobian dinamita erabiltzeari buruzkoa, Patxi Leuza Garcia jaunak egina (26. or.).
- Galdera, 1051/2013 Errege-dekretuan oinarritutako arau-aldaketei buruzkoa eta mendetasunaren arloan diharduten pertsonen gaineko Europako araudia aldatzeko aurreikuspeni buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (27. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuaren erabaki bat betetze aldera abiarazitako ekimenei buruzkoa. Erabaki horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Osasunbidearen osasun zentroetan zerbitzatzen den janariaren kalitatea dela-eta etengabeko ebaluazioa egin dezan. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (28. or.).
- Galdera, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzailei buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (29. or.).
- Galdera, Gizarte Politiketako Departamentuak Adopziorako Entitate Laguntzaileen gainean egiten duen kontrol eta ikuskatzeari buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (30. or.).
- Galdera, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileen tarifei buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (31. or.).

- Galdera, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileek lankidetzaren kontzeptuan jasotzen dituzten kopuruei buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (32. or.).
- Galdera, Foru Administrazioa Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileez baliatzearen arrazoiei buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (32. or.).
- Galdera, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileek bete behar dituzten oinarri arautzaileei eta sinatzen dituzten hitzarmenen edukiari buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (33. or.).
- Galdera, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileek arauak eta entitate horiek kreditatuta daudeneko jarduerak betetzeari buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (34. or.).
- Galdera, adingabearen jatorrizko herrialdeetako arau- edo lege-aldaketek Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileek egiten duten lanean dauzkaten ondorioei buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (34. or.).
- Galdera, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileen eginkizunei eta jarduketari buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (35. or.).
- Galdera, onetsitako lege-aldaketak Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileei aplikatzeari buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (36. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Enrique Martín de Marcos jaunak foru parlamentari karguari uko egitea (38. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularraren eleduna aldatzea (38. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa taxutzerakoan hizkuntza-eskubideak bermatzeko erabilitako irizpideei buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa taxutzerakoan hizkuntza-eskubideak bermatzeko erabilitako irizpideei buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkezten dio Lehendakartzako kontseilari Morrás jaunari:

Hizkuntza eskubideak bermatzeko baliatutako irizpideak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko eta haren erakunde autonomoetako plantilla organikoa taxutzean.

Iruñean, 2014ko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arte grafiko-
en sektorearekin lotutako lehiaketak arautzeko oinarrietan klausula
batzuk sar ditzan, Nafarroako Arte Grafikoen Hitzarmeneko lan-
baldintzak errespetatu daitezzen, eta zuzeneko esleipenetan baldintza
horiei euts diezaien.**

*BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TAL-
DEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita arte grafikoen sektorearekin lotutako lehiaketak arautzeko oinarrietan klausula batzuk sar ditzan, Nafarroako Arte Grafikoen Hitzarmeneko lan-baldintzak errespetatu daitezzen, eta zuzeneko esleipenetan baldintza horiei euts diezaien.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Iragan ekainaren 17an, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean egindako lan bilera batean, arte grafikoen sektoreko ordezkari sindikalek azaldu zuten sektorea zein egoeratan dagoen, AEGRA patronalak probintzia-hitzarmen bat negoziatzen jarraitzeari ezetza eman izanaren ondorioz. Ezetzaren ondorioz, sektoreko enpresak –2013ko abenduaren 31n amaitzen zen hitzarmeneko baldintzak mantendu ordezkari estatuko

hitzarmena aplikatzen ari dira. Hitzarmen horrek larriki urratzen ditu langileen ordura arteko lan-baldintzak, eta arriskuan jartzen ari dira enpresa askoren jarraitutasuna, ezin diotenak aurre egin beraien artean sortu den lehia desleial ikaragarria; izan ere, desagertu egin dira hitzarmenak ezartzen zituen gutxieneko arauak.

Agerraldi hartan, parlamentu-taldeei zenbait proposamen egin zizkiguten, haien ustez sektore horren dinamika hobetu eta bultzatuko luketenak.

Gogora ekarri behar dira azkenaldi honetan parlamentuan izandako bi mugarri garrantzitsu: Mahaian eta Eledunen Batzarrean aurkeztutako mozio bat eta eskaera bat. Parlamentu honen gehiengoaren borondate politikoa adierazi zen orain dela zenbait aste aurkeztutako ekimenetan, zeinen bidez premiatzen baitzen Administrazioak eta enpresa pribatuek lortutako akordioak jaso zitezzen oinarri arautzaileetan. Ekimenetan azpimarra jartzen zen langileen baldintzekiko errespetuan, haiei eragiten dieten hitzarmen kolektiboak betetzearen bitartekoak.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arte grafikoen sektorearekin lotutako lehiaketak arautzeko oinarrietan berariazko klausula batzuk sar ditzan, gutxienez ere Nafarroako Arte Grafikoen Hitzarmeneko lan-baldintzak errespetatu daitezzen, eskubide eta betebeharrak guztiak barne.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sektoreko langileen lan-baldintzak errespetatzeari buruz arestian aipatutako baldintzak mantentzeko, esleipenak zuzenean eta aurretiazko lehiaketarik gabe egiten direnean.

Iruñean, 2014ko uztailaren 1ean

Eledunak: Maiorga Ramírez Erro, Txentxo Jiménez Hervás eta Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da konpromisoa har dezan posta-zerbitzu publikoa defendatzeko.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita konpromisoa har dezan posta-zerbitzu publikoa defendatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Gaur egun, "Correos y Telégrafos" estatu-sozietateak estatuko lurralde osoaren kohesio sozial eta ekonomikoan laguntzen du, zerbitzu publiko bat ematen baitie, salbuespenik gabe, herrigune guztietako herritarrei, enpresei eta administrazioei, zein ere den estatuko sozietate horrek eskaintzen dituen zerbitzuen errentagarritasun ekonomikoa.

Posta eta telegrafoen zerbitzuak 8.000 udal, 16 milioi etxebizitza eta 3,2 milioi enpresa –% 99, enpresa txiki eta ertainak dira– artatzen ditu. 7.100 landa-arretagune daude, eta postariak 100.000 kilometrotik gora egiten dituzte egunero.

Nafarroan, 570 langile daude: 320 postariak dira, eta 170 pertsonak ematen dute zerbitzua landa eremuetan. Guztira, 272 udal dira, eta 900 herrigune. Nafarroan posta-zerbitzua pribatizatzeak kalte larria ekarriko luke, herri txiki asko dagoelako.

Europako eta Espainiako posta-araubideak zenbait finantzabide jasotzen ditu, posta lurralde osora banatzen dela bermatzeko. Zerbitzu publiko bat da, eta, halatan, estatuko herrigune eta eremu guztiak artatzen ditu. Zerbitzu hori sektore pribatuak kudeatuko balu, arriskuan jarriko liriteke lurralde-kohesioa nahiz estatuko sozietate horrek egun eskaintzen duen komunikazioa eta zerbitzuak jasotzeko aukera-berdintasuna; izan ere, errentagarritasun ekonomikorik gabeko herriak abandonatu egin litezke, edo prezio oso altua ordaintzera behartuta egon.

Orain arte, PPren Gobernuak ez du ezer egin logistikaren sektoreko patronalak Europako Batzordean jarritako demandaren aurrean, zeinaren bidez Espainiako estatuari exijitu baitio posta-zerbitzu unibertsalaren finantzaketa itzul dezan, 1998tik hona. PPren Gobernua ez da posta-zerbitzu publikoaren prestazioa bermatzeko jarduten ari. Alegia, zerbitzu publiko horrek desagertzeko eta esku pribatuetara pasatzeko arrisku larria du; horrek, zalantzarik gabe, zerbitzua okerragotzea eta garestitzea ekarriko luke, herri txikietan posta zerbitzua mugatzea, lanpostuak galtzea eta lan-ezegonkortasuna.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du anbiguotasunik gabeko konpromisoa har dezan posta-zerbitzu publikoaren alde, eta behar diren prozedurak taxutu ditzan zerbitzu publiko hori optimizatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du berma dezan, behar adinako finantzaketarekin eta antolamendu eraginkor baten bidez, posta zerbitzua emanen zaiela herritar guztiei, zein ere diren horien bizilekua eta helbide-baldintzak.

3. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du modu positiboan esku har dezan langileekin lan akordio bat lortzea eragozten duten ministerio-erabakiak desblokeatzeko, eta negoziazio prozesuak "Correos" operadore publikoaren kudeaketaren egonkortasuna, efizientzia eta eraginkortasuna lortzen lagun dezan.

Iruñean, 2014ko abuztuaren 1ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da langabezia-sorospena zabal diezaien iraupen luzeko langabezia-egoeran dauden pertsonen, diru-sarrerarik ez badute eta familia-erantzukizunak badituzte, bai eta gizarteratzeko berariazko zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuei ere.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita langabezia-sorospena zabal diezaien iraupen luzeko langabezia-egoeran dauden pertsonen, diru-sarrerarik ez badute eta familia-erantzukizunak badituzte, bai eta gizarteratzeko berariazko zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuei ere.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Juan José Lizarbe Baztán, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoa, honako mozio hau aurkeztu dio Parlamentuko Mahaiari, premiaz izapidetu dadin eta Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da langabeziaren sorospena zabal diezaien iraupen luzeko langabezi egoeran dauden pertsonen, diru-sarrerarik ez badute eta familia-erantzukizunak badituzte, bai eta gizarteratzeko berariazko zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuei ere.

Krisiaren iraupen luzearen ondorioz –horri gehitu behar zaio langabeziaren babes-sistema ez dagoela halako iraupen luzeko zikloetarako pentsatuta–, egunez egun agortuz doa langabetuentzako eta haien familientzako babesa.

2014ko bigarren hiruhilabeteko Populazio Aktiboaren Inkestaren arabera, 5.616.011 pertsona daude langabezian, zeinetatik soilik 1.773.573k jasotzen baitute prestazio motaren bat edo beste.

Nafarroaren kasuan, Nafarroako gizarte- eta lan-kohesioari buruz Comisiones Obreras sindikatuak 2014ko uztailan egindako txostenaren arabera, langabezia-prestazio eta -sorospen kopurua % 18,7 jaitsi zen 2014ko apirilean, iazko hilabete berarekin alderatuz gero. Espainian, berriz, jaitsiera % 11,7koa izan zen. Txostenak orobat dio langabeziaren ondoriozko babes-sistemaren estaldura jaitsiz joan dela azken urteotan: 2014ko apirilean, tasa hori % 56,3koa izan zen Nafarroan; alegia, 2009ko apirilekoa baino 18,5 puntu txikiagoa, 73,6koa izan baitzen.

Konstituzioaren 35.1. artikulua dioenez, “espainiar guztiek lan egiteko eginbeharra dute, eta lanerako eskubidea dute, lanbide edo ogibidea askatasunez aukeratzeko eta lanean igotzeko eskubideak dituzte, eta beren beharrianak eta beren familiarenak asetzeko adina ordainsari jasotzeko eskubidea ere, inoiz sexu-arrazoiengatik bereizkeriarik gertatu gabe.”

Langabezian dauden pertsonentzat –lan egin nahi izan arren lan egiteko konstituzio-eskubidea baliatu ezinean daudenentzat–, Konstituzioaren 41. artikulua ezartzen du botere publikoek herritar guztientzat Gizarte Segurantzako araubide publikoari eutsiko diotela, eta sistema horrek gizarte-laguntza eta -prestazio nahikoak bermatuko dituela beharrian-egoeretan eta, batez ere, langabezia-kasuetan.

Populazio Aktiboaren Inkesta horren arabera, 3.842.438 pertsona daude langabezian eta inolako babesik gabe. Pertsona horiei, lan egiteko eskubideaz gain, orobat ukatzen zaie langabezia-babesa jasotzeko eskubidea.

Egoera honek gizarte-injustizia larri bat dakar; are gehiago, kontuan hartzen badugu horietako asko iraupen luzeko langabezian daudela, ardurak dituztela eta ez daukatela inolako diru-sarrerarik. Aipatutako Populazio Aktiboaren Inkesta horren arabera, 740.000 familia baino gehiagok dituzte beren kide guztiak langabezian eta inolako diru-sarrerarik jaso gabe. Langabeziaren ondoriozko babesa jasotzeko eskubide konstituzionala urratzeak orobat dakar gurasoak langabezian dauzkaten haurrek zuzen-zuzenean pairatzea txirotasun

larri eta ustekabeko hori. Unicef bezalako nazioarteko erakundeek diotenez, 2 milioi baino gehiago dira txirotasun egoeran dauden haur espainiarrak.

Langabeziaren ondorio da familia horien guztien beharrian-egoera. Botere publikoek horregatik bermatu behar dituzte, Konstituzioaren 41. artikuluan argi eta garbi emandako aginduarekin bat, behar adinako gizarte-laguntza eta -prestazioak langabezia-kasuetan.

Sei urte baino gehiago daramagu krisi sakon honetan, eta nazioarteko erakundeen eta Gobernuaren beraren aurreikuspenen arabera, 2017an ere ez dugu berreskuratuko 2011ko enplegu-bolumena. Arlo horretako adituen ustez, gaur egungo politikekin hamarkada bat beharko da krisi aurreko enplegu-maila berreskuratzeko.

Aurten, orain arte, 2.236 milioi euro jaitsi da prestazioetan eginiko gastua, aurreko urtearen aldean. Jada eraginkortasun betekoak dira uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuaren bidez eta abuztuaren 23ko 23/2012 Errege Lege-dekretuaren bidez Gobernuak langabeziaren babesari egindako murrizketa larriak. Langabeziaren ondoriozko babesak ozta-ozta heltzen zaio enplegu bulegoetan izena emanda dauden pertsonen ehuneko 58ri. Dinamika honekin jarraituz gero, langabeziaren ondoriozko babesean egindako gastua 2013an baino 6.000 milioi gutxiagokoa izanen da urte amaieran. Eta hori horrela da, nahiz eta iraupen luzeko langabezian dauden pertsonen eta beren kide guztiak langabezian dituzten familien kopuruak onartezina izaten jarraitzen duen.

Pertsona horiez gain, ordea, badira beste kolektibo bereziki zaugarri batzuk ere babesgabetasuna pairatzen dutenak eta lana aurkitzeko zailtasun handiak dituztenak. Hor dira indarkeriaren biktima diren emakumeak, ezgaitasuna duten pertsonak eta 45 urtetik gorako pertsonak. Eta ezin dugu ahaztu gazteen langabeziaren egoera zaila; izan ere, Nafarroako UGTk orain dela gutxi egindako azterlanaren arabera, "langabezia % 144,5 igo da 16tik 34 urtera bitarteko gazte nafarren artean, eta okupazioa % 42,4 jaitsi da 2008tik hona". Halatan, Nafarroan, une honetan, 34 urtetik beherako 24.700 langile daude, guztira, langabezian; alegia, 2008ko hiruhilabete berean baino 14.600 gehiago. Gainera, gazte horien % 45,7k urtebetetik gora darama langabezian, eta % 76,51k ez du jasotzen langabeziaren ondoriozko inolako prestaziorik.

Hortaz, lan-merkatuan izandako hobekuntza txikiak ezin du berarekin ekarri administrazio publikoak besoak gurutzatuta gelditzea.

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, mozio honen bitartez eta Gobernuak azkenik ireki duen Elkarrizketa Sozialaren Mahaian UGT eta CCOO sindikatuekin lortutako akordioarekin bat etorriz, Gobernuak premiatzen du langabeziaren ondoriozko babesak gehitu dezan, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean araututako langabezia-sorospenaren bidez.

Langabezia-babesa hedatzen da, bere laguntza-mailan, krisi sakon eta luze honek sortu dituen beharrian-egoera berrien aurrean.

Mozio honen bidez exijitzen da langabezia-babesa jasotzeko eskubide konstituzionala berma dadin, halako moduan non langabetu gisa urtebete baino gehiago izena emanda dauden pertsona guztiek jaso ahal izanen baitute langabezia-sorospena, baldin eta familia-ardurak badituzte eta diru-sarrerarik ez badaukate. Eta, ahultasun handiko egoeran egoteagatik eta gizarteratzeko duten zailtasunarengatik, orobat hedatuko da genero-indarkeriaren biktimganaino, ezgaitasuna duten pertsonenganaino eta gizarteratze-errenta aktiboa agortu duten 45 urtetik gorako pertsonenganaino.

Sorospena sei hilabetez emanen da, eta epe hori aldian-aldian luzatu ahalko da langabetua legezko langabezia-egoeran dagoen bitartean. Babes-mekanismo hori mantenduko da harik eta langabezia-tasa ehuneko 15etik beherakoa izan arte.

Sorospenaren zenbatekoa izanen da Ondore Aintzeko Errentaren Hilabeteroko Adierazle Publikoaren 100eko 80, kasu bakoitzean indarrean dagoen adierazlea aintzat hartuta; une honetan, 426 euro hilean. Sorospen hori ez dago aurretiazko kotizazioei lotuta, ezpada lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 75etik gorako errentaren gabeziari; hortaz, langabetuak osorik jasoko du zenbateko hori, nahiz eta langabezia lanaldi partzialeko lanpostu bat galtzeagatikoa izan hasiera batean. Sorospenaren zenbatekoa, berriz, onuradunaren familia-arduren arabera igoko da, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 217.2 artikuluan ezarritako irizpideei jarraikiz, zein ere den bere adina. Hori bai, zenbateko hori ehun euro gutxiagokoa izanen da seme-alaba adingabeak daudenean.

Gobernuak orobat premiatzen dugu finantza dezan enpleguko zerbitzu publikoek enpleguko teknikariak kontratatzea, banakako laguntza indartze aldera eta, hartara, iraupen luzeko langabezia-egoeran dauden pertsonen laneratzea errazte aldera, horiek laneratzeko zailtasunak baitituzte.

Gobernuak berehala eta urgentziaz hartu behar ditu neurri horiek; izan ere, kasu honetan argi dago langabezian dauden pertsonak, familia-ardurak dituztenean, beharizan gorriko egoeran daudela.

Gobernua koiuntura ekonomikoaren aldaketa iragartzen ari den une honetan, krisiaren biktima nagusiak ezin ditugu babesgabetasunean utzi, belaunaldi ahaztu bat balira bezala.

Langabeziaren zorigaitza pairatzen ari diren pertsona guztiei arreta berezia eskaini beharra dago, eta babes-politikak eta horien enplegarritasuna aktibatuzko politikak garatu behar dira.

Proposatzen ditugun neurriak milioi bat langabetu baino gehiagorengana hel litezke: horietako gehienek familia-ardurak dituzte, eta une honetan ez daukate inolako diru-sarrerarik.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiazko erabaki honi buruzkoak eman ditzala:

1. Berehala eta urgentziaz alda dezan ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testuategia, halako moduan non, 2014ko abuztuaren 1etik aitzina, langabezia-babesa hedatuko baitzaie, bere laguntza-mailan, enplegu-zerbitzu publikoan urtebete baino gehiago izena emanda dauden langabetu guztiei, baldin eta familia-ardurak badituzte eta errenta-gabezia baldintzak betetzen badituzte.

Arestian ezarritakoa gorabehera, sorospen hori orobat hedatuko zaie genero indarkeriaren biktima izan direla frogatu duten emakumeei, minusbalio-tasun gradua ehuneko 33koa edo handiagoa dutela frogatzen duten pertsonen, edo beren lan-ahalmena arestian adierazitako ehunekoan gutxiturik izatea dakarren ezgaitasuna onarturik dutenei, eta 45 urtetik gorako langabetuei, baldin eta gizarteratze-errenta aktiboa agortu badute edo programa

horretan sartzeko eskubidea eskatzeko egunaren aurreko 365 egun naturaleko epearen barruan badaude.

Sorospen hori sei hilabetez emanen da, eta epe hori aldian-aldian luzatu ahal da langabetua legezko langabezia-egoeran dagoen bitartean. Babes-mekanismo hori mantenduko da harik eta langabezia-tasa ehuneko 15etik beherakoa izan arte.

Sorospen horren zehazkeria izanen da Ondore Anitzeko Errentaren Adierazle Publikoaren 100eko 80, kasu bakoitzean indarrean dagoen adierazlea aintzat hartuta. Langabetuak osorik jasoko du zehazkeria hori, nahiz eta langabezia lanaldi partzialeko lanpostu bat galtzeagatikoa izan hasiera batean. Sorospenaren zehazkeria, berriz, onuradunaren familia-arduren arabera igoko da, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 217.2 artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz, zein ere den bere adina. Familia-arduren artean adingabeak egonez gero, zehazkeria hori adingabe bakoitzeko 100 euro handituko da.

Sorospen hori jasotzeko ez da baldintza izanen aurretiaz kontribuzio- edo laguntza-prestazioren bat agortu izana; baldintza bakarra izanen da kolektibo bakoitzaren definizioan berean exijitutako eskakizunak betetzea.

2. Berehala ezar dezan, Nafarroako Foru Komunitatearekin eta gizarte-solaskideekin ados jarrita, iraupen luzeko langabezia-egoeran dauden pertsonentzako enplegu plan berri bat.

Plan horrek betiere jasoko du enplegu-zerbitzu publikoaren dotazioa handitzea, enplegu-teknikari berriekin, banakako arreta eskaintzeko iraupen luzeko langabezia-egoeran dauden pertsonen; guztienez ere, enplegu-sustapenean eta -orientazioan aditu diren 3.000 pertsona koa izan arte.”

Iruñean, 2014ko abuztuaren 12an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekintzailtza sustatzeko neurriak har ditzan, izapide administratiboak erraztearen, Nafarroako enpresen esportazio-gaitasuna sutatzearen eta Foru Komunitatera kanpoko inbertsioa erakartzen eta dagoenari eustearen bidetik.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ekintzailtza sustatzeko neurriak har ditzan, izapide administratiboak erraztearen, Nafarroako enpresen esportazio-gaitasuna sutatzearen eta Foru Komunitatera kanpoko inbertsioa erakartzen eta dagoenari eustearen bidetik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Juan José Lizarbe Baztán, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoa, honako mozio hau aurkeztu dio Parlamentuko Mahaiari, premiaz izapidetu dadin eta Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekintzailtza sustatzeko neurriak har ditzan, izapide administratiboak erraztearen, Nafarroako enpresen esportazio-gaitasuna sutatzearen eta Foru Komunitatera kanpoko inbertsioa erakartzen eta dagoenari eustearen bidetik.

Langabezia tasa oso handia da oraindik ere Foru Komunitatean. Sozialiston ustez, UPNren Gobernuaren gelditasun orokorra nabarmena da jarduera ekonomikoa suspertzearen arloan ere.

Halatan, uste dugu beharrezkoa eta premiazkoa dela foru erakundeen esku dauden neurri guztiak abian jartzea, ekintzailtza eta jarduera ekonomikoa sustatzeko.

Zehazki, ekintzailtza bultzatzeko jarduketak sorta bat abian jartzea nahi dugu, administrazioa errazteko neurriak hartzea, Nafarroako enpresen esportazio-jarduera sustatzeko neurriak hartzea, eta atzerriko inbertsioa atzemateko eta atxikitzekeko neurriak hartzea.

Izapide administratiboak errazteko neurri horien bidez bilatzen dena da, besterik gabe, izapidetze administratiboaren ikuspuntutik begi onez har dadin sektore pribatuak edo publikoak planteatutako ekimen oro, baldin eta interes soziala badute eta ingurumenaren arloko legedia eta legedi orokorra errespetatzen badute, eta administrazioaren babesia eta bultzada izan dezaten.

Hartara, uste dugu honako jarduketa hauek abiaraz daitezkeela gutxienez ere:

– Aldez aurreko baimen asko ondorengo kontrol bihurtzea. Horren xedea da erdira murriztea izapidetze-denbora. Salbuespen gisa, ezinbestekoa den kasuetan, aldez aurretiko baimena izanen da administrazio-kontrola gauzatzeko baliatuko den mekanismoa.

– Leihatila bakarra sustatzea enpresen sorkuntzarako, egun dauden administrazio-unitate eta prozedurak egiazki bateratuko dituen, bai eta Europar Batasunetik datozen laguntzak eta Europako Inbertsio Bankuaren finantzaketa eskuratu ahal izateko.

– Administrazioaren informazio- eta koordinazio-sistemak hobetzea. Espediente eta enpresa bakoitzerako beharrezkoa den dokumentazioa era zentralizatuan kudeatzea. Espediente bakarra administrazio guztietarako.

– Enpresa-sorkuntza eta lurraldean jarduera ekonomikoak ezartzea arautzen duten araudi eta legedi sektorial ezberdinak berrikustea, haien koordinazioa eta sinplifikazioa errazte aldera. Horren xedea da jarduera ekonomikoak baimendu eta ezartzeko prozedurak arintzea, lehiakortasunerako eta segurtasun juridikorako lagungarriak izateko.

Nafarroako enpresen esportazio-gaitasuna sustatzeko neurriei dagokienez, honako hauek jarri beharko liriteke abian, gutxienez ere:

– Nafarroako enpresak nazioartekotzeko estrategia berria. Kanpoan aritze aldera enpresen arteko partzuergoak, lankidetzak eta elkartegintza sustatzea, eta abar.

– “Nafarroa-iraungarritasuna-kalitatea” ideia edo marka sustatzea nazioarteko erreferente gisa lurraldearen kalitatezko erabilerari eta bizi-kalitateari, energia berriztagarriari, iraungarritasunari, etxebizitza publikoari, eraginkortasun eta efizientzia energetikoari, ingurumenaren kalitateari, azpiegitura eta dotazioei, ureztaketari, hondakinei eta abarri dagokienez, Nafarroak enpresei ahalbidetuko dietenak alor horietan abal publiko bat izatea, bai eta kanpoan Nafarroako nekazaritzako eta industriako produktuen marka bat izatea ere. •

– Erakundeek nazioarteko foro guztietan parte hartzea, Euroerregioan barne.

Programa horren xedea izanen da esportaziorako oinarria handitzea; hau da, enpresa gehiago sartzeko esportazio-jardueran. Honako hauek izanen lirarteke neurriak:

– Nazioartekotze azeleratuko enpresei berariaz laguntzeko programa. Programak nazioartekotzearen etapa guztietan lagunduko lieke enpresei, aholkuekin, prestakuntzarekin eta kanpoan bazkideak bilatuz.

– Nafarroako enpresen tamaina txikiarekin lotutako arazoak gainditzen laguntze aldera, enpresasareak sustatzeko programa. Honela zehaztuko da:

Enpresa txiki eta ertainen esportazio-partzuergoak eratzeak eta funtzionatzeko laguntza.

Cluster politika bat garatzea; hau da, enpresasareak sortzea, birtual nahiz fisikoak, negozio-sailetan interes konpartituak dituztenak.

Enpresa esportatzaileen eta jarduera horretan hasten direnen arteko lankidetzak programak diseinatzea.

Enpresen integrazioarako prozesuen aldeko giroa sortzea.

Europar Batzordeak sustatutako enpresalankidetzarako programak indartzea.

–Esportaziorako eta nazioartekotzerako aukeren atari bat sortzea. Atari horretan, informazioa emanen da dauden aukera desberdinei buruz. Informazioa, bereziki, nazioartekotu diren enpresen ezagupenekin eta esperientziekin elikatuko litzateke.

– Inbertsio-leihatila bakarra sortzea, finantzaketa prozesuak izapidetzeko.

– Funtz bat sortzea enpresa txiki eta ertainek estrategikotzat jotako bektoreetan nazioartekotzeko laguntza emateko.

– Business Angelsen foru sare bat garatzea, zeina lehendik dauden sare nazionalean eta Europako sarean integratuko baita. Hartara, inbertsioegileen eta ekintzaileen arteko hartu-emanak sustatuko da, eta finantziatorako laguntza emanen da, enpresa-proiektu berriak abian jartzeko.

– Finantza-abalak gaitzea, herri lanetako enpresak nazioartekotzeko.

Eta ekoizpen-inbertsioa Nafarroara bildu eta atxikitzeari dagokionez:

– Atzerriko Inbertsio Zuzenerako Estrategia ezartzea. Besteak beste, neurri fiskalak ezartzea, aurreikusiko dituztenak sozietateen gaineko zergan atzerriko kapitalarekin enplegua eta oinarri teknologikoa duten enpresak sortzera bideratutako kapital inbertsioetatik eratorritako etekinei dagokionez, betiere enplegua ziurtatzen badute. 3-5 ekitaldiko salbuespen-aldia.

– Giza baliabideak jartzea atzerriko enpresak eta inbertsioak bildu eta Foru Komunitatera erakartzeko.

– Kanpaina eta bisita instituzionalak, Nafarroako eragile ekonomiko interesdunekin batera, merkataritzarako eta inbertsioak biltzeko xedea dutenak, eta, bestalde, “Nafarroa” markaren balioa nabarmentzea.

– Patente mapa bat egitea, ezagutzera emateko zein arlotan eta zein tokitan ari den ikertzen Foru Komunitatean, interesa duten balizko inbertitzaileek jakin dezaten eta aukera izan dezaten.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du ekintzaitza sustatzeko neurriak har ditzan, izapide administratiboak erraztearen, Nafarroako enpresen esportazio-gaitasuna sustatzeko eta Foru Komunitatera kanpoko inbertsioa erakartzen eta dagoenari eustearen bidetik, mozio honen zioen azalpenean adierazitakoarekin bat”

Iruñean, 2014ko abuztuaren 12an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan ikastetxe publikoetako zuzendarien hautespenari buruz.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat egin dezan ikastetxe publikoetako zuzendarien hautespenari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan ikastetxe publikoetako zuzendarien hautaketari buruz.

LOMCE-Hezkuntza Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoak arautzen ditu ikastetxe publikoetako arduradunen eginkizunak; besteak beste, zuzendaritza pedagogikoa egitea, hezkuntza-berrikuntza sustatzea eta ikastetxeen heziketa-proiektuaren helburuak lortzeko planak bultzatzea.

Hezkuntzako kontseilariaren abenduaren 2ko 202/2010 Foru Aginduaren bidez egiten da Nafarroako

ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatu, ebaluatu eta haien izendapena berritzeko prozesua.

Nafarroako Gobernuak urtero izendatzen ditu ikastetxe publikoetako zuzendaritza-karguak. Gertatzen dena da ikasturte guztietan portzentaje handi bat dagoela (batzuetan, % 50etik goitiko) zeinetan hautaketa ez den egiten irakasleek beraiek edo hezkuntza erkidegoak eskatuta; aitzitik, hautagairik ez dagoenez, Hezkuntza Departamentuak berak izendatu behar izaten ditu zuzendariak.

Ikastetxe publikoetako ardurak-postuak betetzeko hautagairik ez egotea arazo bat da, azken urteotan errepikatzen ari dena eta Nafarroatik kanpo ere gertatu ohi dena.

Pertsona horiek bere gain hartu beharreko eginkizunen garrantzia kontuan hartuta (zuzendaritza, zuzendariordetza, ikasketaburutzak eta idazkaritza), egungo egoeraren gaineko azterlan sakona egin beharra dago, horien bidez lortu ahal izateko egoera hori etorkizunari begira arindu edo zuzendu ahal izateko proposamenak.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

Ikastetxe publikoetako ardurak-postuen hautaketari buruzko azterlan bat egin dezan; zehazki, zuzendariarena.

Azterlan horrek zenbait neurri jorratuko ditu; besteak beste, postu horietan modu boluntarioan aritu nahi duten funtzionarioen kopurua areagotzeko neurriak.

Iruñean, 2014ko abuztuaren 21ean

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da testuliburu eta eskola-materialen kontrola susta dezan, LOMCE legea Nafarroan ezartzea dela eta.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita testuliburu eta eskola-materialen kontrola susta dezan, LOMCE legea Nafarroan ezartzea dela eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da testuliburu eta eskola-materialen kontrola susta dezan, LOMCE legea Nafarroan ezartzearen kariatara.

LOMCE-Hezkuntza Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa 2014-2015 ikasturtean hasiko da ezartzen Nafarroan; hori da, hain zuzen ere, heldu den ikasturtearen berritasun nagusietako bat.

Hezkuntzako kontseilariaren uztailaren 16ko 65/2014 Foru Aginduaren bitartez, Nafarroako Gobernuak testuliburuaren finantzatze-programari, eskola materialak berritzeari eta LOMCEaren aplikazioari buruzko zenbait alderdi garatu zituen.

Nafarroako Parlamentua, berriz, Parlamentu-talde Popularrak eskatuta, bereziki interesatuta agertu da ikastetxeek beraiek taxututako material didaktikoen kontrola dela eta. Hala ulertu behar da Legebiltzarrak 2013ko azaroaren 28an onetsitako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren 2013-2017 aldirako Plan Estrategikoan berariaz nabarmen zezan Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren eginkizuna.

Nafarroako Gobernuak mozioan premiatutakoa bete zuen, 2014ko ekainaren 2ko NAO-n argitaratutako ebazpenaren bidez.

Zenbait inguruabarri erreparatuta, berriz, 2014-2015 ikasturtean ikuskatze eginkizun hori indartu beharra dago. Aurrena, LOMCEa aurten ezarriko delako lehendabiziko aldirako Foru Komunitatean. Hurrena, hezkuntza-erreforma eta testuliburuaren doakotasun programa ikastetxeetan garatzeko epea ezberdina delako. Hirugarrenik, eta azkenik, Hezkuntza Departamentuak urtebetetik bi urtera handitu duelako ikastetxeek materialak arian-arian berritzeko epea.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren 2013-2017 aldirako Plan Estrategikoan jaso dezan ikastetxeen testuliburuak eta eskola materialak LOMCEri egokitzea.

2. Hezkuntza Ikuskaritzako Zerbitzuaren programak, ikastetxeek beraiek taxututako materialak kontrolatzekoak, indartzea, LOMCEri eta Nafarroako curriculum ofizialari egokitzen zaizkiela egiaztatzea.

Iruñean, 2014ko abuztuaren 20an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da errefusa dezan Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa dela-eta PPK proposatzen duen aldaketa, alkateen zuzeneko hautespena bermatzen duena.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita errefusa dezan Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa dela-eta PPK proposatzen duen aldaketa, alkateen zuzeneko hautespena bermatzen duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Hedabideek egunotan aurreratu dutenaren arabera, PPrek Gobernuaren asmoa da Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoren erreformarekin aurrera jarraitzea, alkateak zuzenean hautatzeko, nahiz eta PSOEn babesa eduki ez. Jada iragan uztailaren 28an, Gobernuak lehendakari Mariano Rajoyrekin izandako elkarrizketan, PSOEko idazkari nagusi Pedro Sánchezek adierazi zuen ez dagoela ados PPrek Gobernuak proposatutako hauteskunde-erreformarekin, eta ezetz biribila eman zion alkateak hautatzeko sistema aldatzeari, uste baitu ezin dela proposatu halako aldaketa sakon bat adostasun politikorik gabe eta udal hauteskundeetarako hilabete gutxi batzuk falta direnean.

Une honetan –bederatziz hilabete falta dira hurrengo udal hauteskundeetarako–, Gobernuak oportunitatez eta nagusikeriaz ari da planteatzen

hauteskunde-erreforma hau. PPrek estrategia da zunda-globo bat botatzea, hitz egiteko prest dudelako esatea eta gainontzeko alderdi politikoei leporatzea ez dutela akordiorik lortu nahi. Gure ustez, politika elkarrizketa, negoziazioa eta akordioa da, baina baita gure buruari demokratikoki ezarri dizkiogun arauak betetzea, eta ez horiek alderdikeriagatik aldatzea. PPrek Gobernuak ezin ditu joko-arauak aldatu partida bukatu baino minutu gutxi batzuk lehenago, eta azaldu egin behar du zer dela-eta daukan horrenbesteko presa lege hori udal-araubideari dagokionez aldatzeko.

Itxura guztien arabera, alkateak galtzeko beldurra dago Rajoyren Gobernuak proposatutako erreformaren atzean. Proposamen hori ez da ez eskakizun soziala, ez politikoa ere, eta arrazoi bakarra da PPrek alkateak hori eskatu izana boterean iraunarazteko, gehiengo demokratikoari trufa eginez. Oraingo honetan, PPrek Gobernuak berriro ere gutxiesten du Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioa, gure herrian udalgintzaren ordezkatzeko-entitatea baita. Demokrazian, gehiengoak negoziatuz, amore emanaz eta konpartituz eraikitzen dira. Espainian, hauteskunde-sistema proportzional bat daukagu, gutxiengoei ahotsa emateko eta gutxiengo horiek, elkar hartuta eta akordio politikoa oinarri, gehiengo bihurtu ahal izateko ere.

PPK asko hitz egiten du eraberritze demokratikoz, baina ez daki hori zer den, eta ez du praktikan jartzen. Rajoy jaunak jakin beharko luke demokrazian gehiengoak daukan alderdia ezin zaiola gailendu beste indar politikoko batzuek osatutako gehiengoari, ehuneko 40 ez dela gehiengo osoa, eta bost gehi bi gehiago direla sei baino. PPK oinarri demokratiko hori argi ez daukan bitartean, ez dago zer negoziatu.

PSOE bere esku dituen baliabide guztiekin saiatuko da ekiditen berriro gerta dadin, alkateak hautatzeko sisteman, Gaztela-Mantxako estatutuaren aldaketarekin gertatutako hauteskunde-iruzurra. Espainian, hauteskunde-sistemaren aldaketak beti egin dira adostasunez, elkarrizketaren bidez eta hitzarmenaren bidez; hain zuzen ere, PPK orain nahi duenez bestela.

Hitz batez, ezin da planteatu alkateen hautaketari buruzko aldatarik Hauteskunde Erregimenari buruzko Lege Organikoa urgentziaz aldatuta, adostasunik gabe eta udal hauteskundeetarako hilabete gutxi batzuk falta direnean. Rajoyren Gobernuak tematuta jarraitzen du udal autonomiarri sistematikoki eraso egiten. Lehendabizi, zalaparta handiz iragarri zuen toki-erreforma, zeina erabateko porrota izan baita, eta Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legea onetsi zuen. Lege horrek ahalmen politikorik eta eskumenik gabe uzten ditu udalak, eta herritarrak eta bizilagunak toki entitateengandik urruntzen ditu, eraisten ari direlako udalak ematen ari ziren zerbitzu publikoak. Gero, Justiziako ministroak mahai gainean duen Mugaketa eta Ezarpen Judizialaren Lege proposamena iragarri zuen PPK. Proposamenak epai-barrutiko buru izandako udalen jarduera

judiziala desitxuratzen du. Eta orain, PPK berriro ere mehatxatzen du udal demokrazia, alde baka-rez proposatzen baitu hauteskunde-erreforma bat, soilik bere interes politiko eta hauteskundeetakoiei mesede egiteko.

Horregatik guztiagatik, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuari premiatzen du errefusa dezan Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa dela-eta PPK proposatzen duen aldaketa, alkateen hautaketa zuzena bermatzen duena.

Iruñean, 2014ko abuztuaren 22an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari premiatzen da behar adinako finantzaketa berma dezan udal jabetzako haur eskolek kalitatezko zerbitzua eman dezaten, eta udaletako berdintasun arloko zerbitzuak eta programak finantza ditzan.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuari premiatzen baita behar adinako finantzaketa berma dezan udal jabetzako haur eskolek kalitatezko zerbitzua eman dezaten, eta udaletako berdintasun arloko zerbitzuak eta programak finantza ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregulamentuan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin:

Udalek herritarrei eskainitako zerbitzuak finantzatzeko aurrekontuetan bata bestearen ondotik egindako murrizketek kalte egiten diete udalek emandako prestazio horiei.

Zehazki, Orik 3 urtera bitarteko ikasleentzako hezkuntza zerbitzua, zeina udal titulartasuneko ikastetxe askotan ematen baita, behin baino gehiagotan murriztu da, obrei, azpiegiturei eta funtzionamendu gastuei dagokienez nahiz zuzeneko zerbitzuari dagokienez. Udalek, orain arte, Nafarroako Gobernuaren 2014rako diru-laguntzaren parte bat soilik jaso dute, beren jarduera gartzeko. Ikasturtea hasi da, eta ez dute lehen hiru hilkoa ordaintzeko finantzaketaren ehuneko ehun

jasotzeko inolako bermerik, eta ez dakite zeintzuk izanen diren ikasturterako baldintzak. Hezkuntza Departamentuak ez du inolako konpromisorik hartu alde horretatik.

Bestalde, udalen berdintasun-programetan ere ari dira murrizketak egiten, eta programa horiek garatze aldera udalei ematen zaizkien diru-laguntzetan ez dira jasotzen langileen ordezkapenak laneko ezgaitasun kasuetarako; halatan, okertu egiten dira zerbitzuak eta programak, edo/eta udalen diru-kutxek aparteko gastu bati egin behar diote aurre, beste pertsona batzuk kontratatzeko.

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio behar adinako finantzaketa berma dezan udal jabetzako haur eskolek kalitatezko zerbitzua eman diezaieten herritarrei, lurralde-berdintasunaren printzipioa gidari hartuta.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio behar adinako finantzaketa berma dezan, udaletako berdintasun arloko zerbitzuen eta programen jarraitutasuna ziurtatzeko.

Iruñean, 2014ko abuztuaren 23an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San José zentroko aste bitarteko zaintzaileei aplika diezaien urteko 1.457 orduko lanaldia.

GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San José zentroko aste bitarteko zaintzaileei aplika diezaien urteko 1.457 orduko lanaldia.

Legebiltzarreko Gizarte Politiketako Batzordeak, 2014ko irailaren 2an egindako bilku-

ran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2014ko ekainaren 27ko 81. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroan Gizarte zerbitzuen zentroak eta baliabideak irekitzea eta abian jartzea baimentzeko oinarriak arautuko dituen estatu-araudiaren aurreproiektuaren ondorioei aurre egiteko garatuko diren ekintzei buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan Gizarte zerbitzuen zentroak eta baliabideak irekitzea eta abian jartzea baimentzeko oinarriak arautuko dituen estatu-araudiaren aurreproiektuaren ondorioei aurre egiteko garatuko diren ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Gizarte Politiketako kontseilariak batzordean ahoz erantzun dezan:

– Gizarte Politiketako Departamentuak zer egiten du gizarte zerbitzuen zentroak eta baliabideak Nafarroan irekitzea eta abian jartzea baimentzeko oinarriak arautuko dituen estatu-araudiaren aurreproiektuaren ondorioei aurre egiteko?

Iruñean, 2014ko uztailaren 17an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, Amma Taldearekin sinatutako hitzarmenean araututako zerbitzuengatik Oblatasko Zentroko erabiltzaileen familiartekoei ustez kobratu izanari buruzkoa.

BIKENDI BAREA AiestARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, Amma Taldearekin sinatutako hitzarmenean araututako zerbitzuengatik Oblatasko Zentroko erabiltzaileen familiartekoei ustez kobratu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako kontseilariak batzordean ahoz erantzun dezan:

Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzaileak Gizarte Politiketako Batzordean egindako agerraldian, Amma Taldearekin itundutako zentroetan ematen den arreta sozio-sanitarioari eta errehabilitazio-arretari buruz informatzekoan, zenbait zalantza eta ustezko anomalia azaldu ziren, eta parlamentu-talde honek horiek argitu nahi ditu.

Egoitza-zentroko Programako Zerbitzuen Planeko 2. atalaren barruan ageri dira laguntza pertsonalerako berariazko eskakizunak.

Kapitulu horretan ondokoa esplizitatzen da, besteak beste:

a) Higiene pertsonala, garbiketa eta estetika, zeinen barruan sartzen baitira:

- Higienea, garbitasun pertsonala, estetikari arreta berezia jartzea eta norbanakoaren gustuak.
- Emakumeen aurpegi-depilazioa halakorik behar dutenen kasuan, gizonaen bazar-moztea, eta oinetako nahiz eskuetako azazkalak moztea, podologia espezializaturik behar ez dutenen kasuan.

Parlamentu-talde honek egiaztatu zuen, Amma Taldearen Oblatasko Zentroko erabiltzaileen familiartekoekin bildu zenean, ustez ordainketa bikoitzak egin direla Nafarroako Gobernuak eta Amma Taldeak sinatutako hitzarmeneko oinarri arautzaileetan sartutako zerbitzuetan.

Horrenbestez, egoera argitze aldera, ondoko galderak egiten dizkiogu Gizarte Politiketako kontseilariari:

1. Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak egiaztatu ahal izan du kobrantzarik egin zaien edo egiten ari zaien Amma Taldearekin sinatutako hitzarmenari jarraikiz talde horrek kudeatutako Oblatasko Zentroko erabiltzaileen familiartekoei

Baiezkoan,

2. Zeintzuk eta noiztikoak dira zerbitzuak? noiztik egiten ari dira kobrantzak? Eta Oblatasko Zentroko erabiltzaileek ustez bidegabeki ordaindutako zenbatekoak?

3. Hitzarmeneko oinarri arautzaileetan jasota ez dauden ordainketa bikoitzeko gertakari horiek berretsiz gero, Gizarte Politiketako Departamentuak zer egingen du ustezko irregulartasun hori zuzentzeko?

Iruñean, 2014ko uztailaren 18an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, Nazioarteko Lankidetzaren arloko politiketan gertatuko diren aldaketei buruzkoa.

BIKENDI BAREA AiestARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, Nazioarteko Lankidetzaren arloko politiketan gertatuko diren aldaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Gizarte Politiketako kontseilariak batzordean ahoz erantzun dezan:

1. Zer aldaketa gertatuko dira Nazioarteko Lankidetzaren arloko politiketan, Nafarroako Gobernuak eta Estatuak arlo horretako lan-ildo bateratuak eta osagarritasun-bideak adostu ostean?

Iruñean, 2014ko abuztuaren 11n

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, Errusiako Gobernuak Europar Batasunetik heltzen diren elikagaien inportazioari ezarritako murrizketek Nafarroako nekazaritza-industriari eraginen dioten kalteari buruzkoa.

M^a CARMEN OCHOA CANELA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M^a Carmen Ochoa Canela andreak aurkeztutako galdera, Errusiako Gobernuak Europar Batasunetik heltzen diren elikagaien inportazioari ezarritako murrizketek Nafarroako nekazaritza-industriari eraginen dioten kalteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Mari Carmen Ochoa Canela andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioeko kontseilariak kasuko batzordean ahoz erantzun dezan:

Zure ustez, Errusiako Gobernuak Europar Batasunetik datozen elikagaien inportazioari ezarritako murrizketek zer kalte egingen diote Nafarroako nekazaritza-industriari?

Nafarroako Gobernuak zer egingen du Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioarekin batera, barazki eta fruta produktuen esportazioan gertatuko diren galerak arintzeko?

Iruñean, 2014ko abuztuaren 12an

Foru parlamentaria: María Carmen Ochoa Canela

Galdera, Cultur 2014ko jarduera-programak gaztelania hutsez banatzearen arrazoiei buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, Cultur 2014ko jarduera-programak gaztelania hutsez banatzearen arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Sánchez de Muniáin jaunak Legebiltzarreko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Departamentuak zergatik zabaldu ditu gaztelaniaz soilik Cultur2014 zikloko jardueren programak?

Iruñean, 2014ko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, ikastetxeetako zuzendaritza-eginkizunetarako hautagaitzarik ez egoteari buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, ikastetxeetako zuzendaritza-eginkizunetarako hautagaitzarik ez egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Departamentuaren ustez, arazo bat al da ikastetxeetako zuzendaritza-eginkizunetarako hautagaitzarik ez egotea? Departamentuak zer beste neurri planteatuko du lanpostu horiek duintzeko eta lanpostu horietara boluntarioak aurkezte sustatzeko?

Iruñean, 2014ko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, Musikako Gradu Profesionaleko eta Goi Mailako piano-jotzaile erreperstoristaren espezialitatean aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak egiteko erabilitako irizpideei buruzkoa eta Estatuko Gobernuak musikako goi mailako irakaskuntzei eta irakaskuntza profesionalei dagozkien espezialitate berrietako gaitegiak argitara eman ditzan egin diren kudeaketei buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Musikako Gradu Profesionaleko eta Goi Mailako piano-jotzaile erreperstoristaren espezialitatean aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak egiteko erabilitako irizpideei buruzkoa eta Estatuko Gobernuak musikako goi mailako irakaskuntzei eta irakaskuntza profesionalei dagozkien espezialitate berrietako gaitegiak argitara eman ditzan egin diren kudeaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak zer irizpide baliatu ditu Musikako Gradu Profesionaleko eta Goi Mailako piano-jotzaile erreperstorista espezialitaterako aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak egiteko? Zein da, gaur egun, zerrenda horren egonkortasuna?

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua zer zuzemen egiten ari da Estatuko Gobernuak argitara ditzan musikako gradu profesionaleko eta goi mailako ikasketetako espezialitate berrietako gaitegiak?

Iruñean, 2014ko ekainaren 30ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, animaliak babesteari eta ikuskizun publikoei buruzko foru araudian ezarritakoa betetzeari buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, animaliak babesteari eta ikuskizun publikoei buruzko foru araudian ezarritakoa betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernua zer neurri ari da hartzen animalien babesari eta ikuskizun publikoei buruzko foru araudian ezarritakoa betetzen dela ziurtatzeko, animalianganako tratu txarrak ekidite aldera Nafarroako herrietako jaiguneetako haurrentzako atrakzioetan –eta, bereziki, sanferminetan–?

Iruñean, 2014ko uztailaren 3an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, udaldi honetan Nafarroako osasun-sistema publikoan ospitale-ohak ixteari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, udaldi honetan Nafarroako osasun-sistema publikoan ospitale-ohak ixteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako osasun-sistema publikoan uda honetan ehun bat ospitale-ohak itxi direla egiaztatuta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.- Zenbat desbideratze egin dira osasun-zerbitzu pribatuetara itxiera horren eraginez?

2.- Desbideratze horiek zenbateko kostua izan dute guztira?

3.- Aurreko urteekiko alderaketa.

Iruñean, 2014ko uztailaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, “Proposamen fiskal integrala” lan-agiriari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, “Proposamen fiskal integrala” lan-agiriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek honako hau jakin nahi du Nafarroako Gobernuak uda honetan aurkeztutako “Proposamen Fiskal Integrala” izeneko lan-dokumentuari buruz:

Bat. Nafarroako Gobernuak noiz aurkeztuko du du Foru Lege proiektua Nafarroako Parlamentuko erregistroan, halatan Legebiltzarreko eztabaidari hasiera eman ahal izan dakion?

Bi. Ekimen hau erregistratu den egunean, Nafarroako Gobernuak erregistroan sartu gabe dauka lege proiektu hori. Zer dela eta?

Iruñean, 2014ko uztailaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, balantza fiskalei buruz Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak egin duen txostenari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, balantza fiskalei buruz Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak egin duen txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek honako hau jakin nahi du Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak balantza fiskalei buruz 2014ko uztailaren 23an argitara emandako txostena dela eta.

1.- Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten duen txostena egiteko erabilitako metodologiari buruz.

2.- Ea bere ustez txostenean jaso gabe gelditu den garrantzitsu izan litekeen elementu eta jarduketarik.

Iruñean, 2014ko uztailaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, NA-5100 (Garinoain-Leotz), NA-5110 (Puiu-Lergako gaina), NA-5154 (Uzkieta) eta NA-5163 (Santsoain) errepideen konponketari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, NA-5100 (Garinoain-Leotz), NA-5110 (Puiu-Lergako gaina), NA-5154 (Uzkieta) eta NA-5163 (Santsoain) errepideen konponketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zarraluqui Ortigosa jaunak honako hau zioen parlamentari honek egindako idatzizko galdera bati 2014ko uztailaren 16an emandako erantzunean; hain zuzen ere, erantzunaren 8. puntuan: “ (...) departamentu honek, ohiko zainketa zerbitzuen bitartez, honako errepide hauek konponduko ditu arian-arian, funtzionaltasun eta segurtasun egoera egokian egon daitezen: NA-5100 (Garinoain-Leotz); NA-5110 (Puiu-Lergako gaina); 5154 (Uzkieta), eta NA-5163 (Santsoain)”.

Horri buruz, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Noiz ekinen zaio errepide horiek arian-arian konpontzeari?

– Ba al dago konponketak hasteko egunik?

– Horri buruzko foru agindurik onetsi al da?

– Zenbat baliabide ekonomiko eta giza baliabide aurreikusi du horretara bideratzea 2014an zehar? Eta 2015ean zehar?

– Egoera aztertze aldera departamentuak eta ukitutako toki entitateek izandako bileren xehetasunak jaso nahi ditugu.

Iruñean, 2014ko uztailaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, udaldi honetan Nafarroako osasun publikoan ospitale-oheak, solairu erdiak eta operazio-gelak ixteari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, udaldi honetan Nafarroako osasun publikoan ospitale-oheak, solairu erdiak eta operazio-gelak ixteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako osasun-sistema publikoan uda honetan ehun bat ospitale-ohe itxi direla egiaztatuta, parlamentari honek hauexek jakin nahi ditu:

1. Uda honetan itxitako oheen, solairu erdien eta operazio-gelen kopuru zehatza.

2. Erabaki horrek itzarote-zerrendetan izan duen eragina.

3. Langileen oporrak estaltzeko egindako kontratazioen maila eta indizea.

4. Udan irekita dauden oheen okupazio-indizea, aurreko urteetako datuekin alderatuta.

Iruñean, 2014ko uztailaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Iberdrolako akzioak saltzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Iberdrolako akzioak saltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Iragan uztailaren 20an prentsan argitaratutako elkarrizketa batean, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Lourdes Goicoecheak honako hau zioen: "Iberdrolaren akzioen % 50 saldu dugu jada, 63,2 milioi euroan"

Hori dela-eta, hauexek jakin nahi ditut:

• Data horretan salduta zeuden akzioen xehetasunak: salmenta-eguna, kopurua eta prezioa.

Iruñean, 2014ko uztailaren 29an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, diru-bilketa fiskalari buruzko informazioa emateko erabilitako “diru-bilketa likido” eta “diru-bilketa garbi” kontzeptuei buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, diru-bilketa fiskalari buruzko informazioa emateko erabilitako “diru-bilketa likido” eta “diru-bilketa garbi” kontzeptuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Gobernuak bi formatu ezberdin erabiltzen ditu zerga-bilketari buruzko informazioa emateko. Batetik, “Diru-sarrerak: diru-bilketa likidoa” izeneko koadroa argitaratzen du hiru hilean behin (azkena 2014ko bigarren hiruhilekoari dagokio); bestetik, aurrekontuen betetze-mailari buruzko txostena argitaratzen du hilero. Txosten horretako lehen orrialdean, diru-sarreraren aurrekontuaren betetze-maila aztertzen da, eta 4. zutabea diru-bilketa garbi deritzonari dagokio.

Lehen txosteneko diru-bilketa likidoari buruzko zutabea eta bigarren txosteneko diru-bilketa garbiari buruzkoan jasotako datuak ez datoz bat.

Hori guztia ikusirik, hona galderak:

– “Diru-bilketa likidoa” eta “diru-bilketa garbia” kontzeptuak ezberdinak al dira?

– Baiezkoan, zein da bi kontzeptu horien arteko aldea?

Iruñean, 2014ko uztailearen 30ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Urdazubiko Alkerdi marmol-harrobian dinamita erabiltzeari buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuzak García jaunak aurkeztutako galdera, Urdazubiko Alkerdi marmol-harrobian dinamita erabiltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuzak García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Sustapen Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Iragan uztailearen 15ean, Alkerdiko marmol-harrobian –Urdazubiko udal mugapean– 2.000 kilo dinamitaren leherketak kezka eta beldur handia eragin zituen, burrunba handiaz gain, Nafarroako herri horretako biztanleen artean, zeren horien etxeak harrobitik 300 metro baino gutxiagora baitaude.

Leherketak harridura eta izua eragin zituen biztanleen artean, baina baita turistaren artean ere; izan ere, leherketaren unean lkaburuko kobazuloetan sartzekoak ziren, eta beldur handia pasatu zuten; hainbeste, non baten bat kobazulora sartu gabe gelditu baitzen.

Urdazubiko eta Zugarramurdiko kobazuloek balio arkeologiko neurtezina dute; horretaz gain, Nafarroaren kultur ondarea dira, bai eta eskualderako jarduera ekonomikoa sortzen duen turismozentro garrantzitsua ere. Kobazulo horiek babesba dute, arloko aditu ugari eta garrantzitsuek aurkitu, aztertu eta inbentariatutako aztarnak eta labarmargoak direla eta.

la hilabete igaro da, eta Gobernuak oraindik ez du azalpen ofizialik eman gertatutakoari buruz, eta, batez ere, ez du argitu uztailaren izandako leherketen tamainako besterik berriro gertatuko ote den.

Hori dela-eta, ondoko galderak aurkeztu ditugu:

1. Gobernuak meatze-enpresarekin harremanetan jarri al da jakite aldera zenbat dinamita erabili zuen uztailaren 15ean eta zer segurtasun-neurri hartu zituen egun hartan?

2. Enpresak emandako informazioa eskueran baldin badauka, zenbat dinamita erabili zuen eta zer segurtasun-neurri hartu ziren egun hartan?

3. Nafarroako Gobernuak zer erabaki hartu ditu uztailaren 15ean gertatutakoaren ondoren, harrobiari eta enpresari dagokienez?

4. Gobernuak zer neurri hartuko ditu etorkizuneko balizko leherketen aurrean herritarrak babesteko?

5. Gobernuak kobazuloak babesteko zer neurri hartu ditu harrobia egiten ari den leherketetatik?

Iruñean, 2014ko abuztuaren 13an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, 1051/2013 Errege-dekretuan oinarritutako arau-aldaketei buruzkoa eta mendetasunaren arloan diharduten pertsonen gaineko Europako araudia aldatzeko aurreikuspeni buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, 1051/2013 Errege-dekretuan oinarritutako arau-aldaketei buruzkoa eta mendetasunaren arloan diharduten pertsonen gaineko Europako araudia aldatzeko aurreikuspeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestarane, Erregelamen-

duaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Gobernuaren web orrian, 2014ko uztailaren 1eko "Aktualitatea" izeneko atalean, publikoki jakinarazten zen mendetasuna duen familiarteko bat zaintzen duten pertsonen pertsona horrekin bizi beharko dutela laguntzak jaso ahal izateko.

Jakinarazpen horren oinarrian foru agindu baten zirriborroa zegoen, Gizarte Ongizatearen Nafarroako Kontseiluaren oniritzia zeukana, Autonomiaren aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren prestazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 1051/2012 Errege Dekretuaren babespean Prestazio horiek Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarri ziren.

Errege dekretuaren 12. artikuluan honako hau azaltzen da familiaren esparruko zainketetarako eta zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoa jasotzeko betekizunei eta baldintzei dagokienez:

“2. Mendetasun-egoeran dagoen pertsona baten zaintzaile ez-profesional izaera hartu ahalko dute haren ezkontideak eta odol, ezkontza edo adopzio bidezko ahaidetasuneko hirugarren gradura arteko ahaideek, baldin eta mendetasun-egoeran dagoen pertsonaren bizileku bera badute, haiek zaintzen badute eta eskabidea aurkeztu aitzin urtebetez egin badute hori. Familia-harremnaren gisa bereko egoeratzat hartuko dira izatezko bikoteak, tutoreak eta administratiboki edo judizialki izendatutako pertsonak, harrera-eginkizunak dituztenak.”

1. Gizarte Ongizatearen Nafarroako Kontseiluaren oniritzia zeukan foru aginduaren zirriborroak beste arau-aldaketarik jasotzen al du, abenduaren 27ko 1051/2013 Errege Dekretua oinarri?

2. Nafarroako Gobernuak ziur al daki Europako araudia 2015ean alda daitekeela eta, horren arabera, mendetasunaren arloan lan egiten dutenek titulazio jakin bat lortu beharko dutela nahitaez?

Iruñean, 2014ko abuztuaren 14an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, Nafarroako Parlamentuaren erabaki bat betetze aldera abiarazitako ekimenei buruzkoa. Erabaki horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbidearen osasun zentroetan zerbitzatzen den janariaren kalitatea dela-eta etengabeko ebaluazioa egin dezan.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Parlamentuaren erabaki bat betetze aldera abiarazitako ekimenei buruzkoa. Erabaki horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbidearen osasun zentroetan zerbitzatzen den janariaren kalitatea dela-eta etengabeko ebaluazioa egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaiola:

Iragan ekainaren 12an, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak mozio bat onetsi zuen, zeina-

ren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen ebaluazio jarraitu bat egin dezan, satisfazio-inkestaren bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun-zentroetan ematen den janariaren kalitateari buruz.

Mozioan adierazten zenez, “inkesta horiek ospitaleratze-momentuan emanen zaizkie gaixoei, gainontzeko dokumentazio eta tresnekin batera, eta ospitale-egonaldia beste alderdi batzuen gaineko iritzia ere jaso ahalko dute, uneoro konfidentzialtasuna bermatuz.”

Testuak orobat adierazten zuen osasun arloko langileak arduratuko direla “inkesten xedeari buruz eta horiek ospitale-egonaldian zehar betetzeko aukerari buruz informatzeaz, bai eta senda-agiria eman baino lehenago gogorarazteaz inkesta betetzea garrantzitsua dela balizko akatsak zuzentzeko eta erabiltzaileak sumatutako zerbitzu-kalitatea hobetzeko.”

Halaber, Nafarroako Gobernuari eskatzen zitzaion Mediterránea de Catering enpresa presatu zezan esleipen-lehiaketan adierazi zuen konpromisoa betetzeko eta inkestak ere egiteko, sei hilabete behin gutxienez.

Eta, azkenik, Nafarroako Gobernua premiatzen zen hiru hilabete behin inkestak egin diezazkien, 2014ko ekainetik aitzina, Mediterránea de Catering enpresako zein Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko dietistei, bai eta gaixoen elika-

durarekin zerikusia duten Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboei ere.

Zer ekimen abiarazi da erabaki hori betetzeko? Egin al dira inkesta horiek? Atera al da ondoriorik?

Baiezkoan, xehetasunez azalduta jaso nahi dugu zer prozedura baliatu den, zer ondorio atera den eta zer jarduketa egin litekeen.

Iruñean, 2014ko abuztuaren 20an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Nazioarteko Adopzioarako Entitate Laguntzaileei buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, Nazioarteko Adopzioarako Entitate Laguntzaileei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Nafarroako Gobernuo Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

1. Gizarte Politiketako Departamentuak eta adopzioaren esparruan eskumena duten haren menpeko erakundeek ba al dakite zer-nolako edukia eta forma duten nazioarteko adopzioarako entitate lankideen eta erabiltzaile diren pertsonen arteko harremanek?

2. Ba al dakite entitate lankideen erabiltzaileak informatuta ote dauden beren norbanako-espedientearen gaineko guztiari buruz eta sinatutako kontratuen baldintzei buruz?

3. Gizarte Politiketako Departamentuak eta adopzioaren esparruan eskumena duten haren menpeko erakundeek arlo horretan baliatzen den kontusail bakoitzaren eta zenbatekoaren berri ba al dute?

4. Frogen bidez al dakite familia erabiltzaileei adopzio prozesu osoan zehar egindako gastuak aurkeztu eta behar bezala zehazten ote dizkieten nazioarteko adopzioarako entitate lankideek?

5. Gizarte Politiketako Departamentuak eta adopzioaren esparruan eskumena duten haren menpeko erakundeek ba al dakite hitzartutako prestakuntza-zikloak betetzen ote diren eta nazioarteko adopzioarako entitate lankideak saiatzen ote diren familiak edo unitate gurasobakarrak euren artean harremanetan egon daitezten?

6. Beste autonomia erkidego batzuetako nazioarteko adopzioarako entitate lankideek –Foru Komunitatekoek jarduten duten herrialde beretan lan egiten dutenek– adopzio-prozesu azkarragoak dauzkatela esateko ebidentziarik ba al du Gizarte Politiketako Departamentuak? Baiezkoan:

7. Departamentuaren ustez, zer arrazoi dago prozesu horiek azkarrago egiteko?

Iruñean, 2014ko abuztuaren 21ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, Gizarte Politiketako Departamentuak Adopziorako Entitate Laguntzaileen gainean egiten duen kontrol eta ikuskatzeari buruzkoa.

BIKENDI BAREA Aiestaran JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, Gizarte Politiketako Departamentuak Adopziorako Entitate Laguntzaileen gainean egiten duen kontrol eta ikuskatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialan argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Nafarroako Gobernuo Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretuko VIII. kapituluak –Kontrola eta ikuskapena– honako hau dio:

“27. artikulua. Entitate laguntzaile batek beste komunitate autonomoetan ere jasotzen badu gaikuntza, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak behar den koordinazioa ezarriko du komunitate haietako organo eskudunekin, kontrola eta ikuskapena hobeki egin ahal izateko”.

1. Koordinatu al da Nafarroako Gobernuo Gizarte Politiketako Departamentuko organo eskuduna beste autonomia erkidego batzuetako gisa bereko organoekin –entitate horiek lan bera egiteko gaituta duden erkidegoetakoekin–, 256/1996 Foru Dekretuan ezarritako kontrola eta ikuskapena egiteko? Baiezkoan,

2. Nafarroako Gobernuo Gizarte Politiketako Departamentuak ziurtasunez al daki beste autonomia erkidego batzuetan gaitutako entitate lankideen nazioarteko adopziorako prozesuaren dinamika askoz ere azkarragoa ote den Nafarroako Foru Komunitatean baino? Baiezkoan,

3. Zer arrazoi dago Nafarroako Foru Erkidego nazioarteko adopziorako entitate lankideen epeak luzatzeko, beste lurralde batzuen aldean?

4. Organo eskudunak zer neurri ezarriko ditu, antzekoak izan daitezten Nafarroan lan egiten duten entitate lankideen adopzio-epeak eta beste autonomia erkidego batzuetan lan egiten dutenak?

Iruñean, 2014ko abuztuaren 21ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileen tarifei buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileen tarifei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranez, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Nazioarteko adopziorako entitate laguntzaileen gaikuntza arautzen duen ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretuaren VII. kapitulu

–zehazki, 17., 19., 20., 21. eta 23. artikuluetan aipatzen da entitate horiek zer alderdi finantzario fakturatu behar dieten eskatzaileei.

1. Nafarroako Autonomia Erkidegoko nazioarteko adopziorako entitate lankideak beren zerbitzuak eskatu dituzten pertsonekin adostutako kontratu-tarifetara egokitu al dira?

2. Nazioarteko adopziorako entitate lankideen erabiltzaileei gainkosturik ordainarazi al zaie bi aldeek kontratuan sinatutako tarifak aldatu izanaren ondorioz? Baiezkoan:

3. Gizarte Politiketako Departamentuaren ustez, gainkostu horiek guztiak araudi indardunaren arabekoak eta emandako zerbitzuekiko proportzionalak eta egokiak al dira?

4. Gizarte Politiketako Departamentuaren ustez, zerbitzu horren erabiltzaileek adingabearen jatorrizko herrialdera bidaiatzegatik fakturatu diren gastuak egokiak eta proportzionalak al dira?

5. “Espedientearen amaiera” izeneko zenbatekoak, adingabearen jarraipenean adopzio osteko txostenak egiteari dagozkionak, zein unetan ordaindu behar dituzte zerbitzu horien erabiltzaileek?

Iruñean, 2014ko abuztuaren 20an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileek lankidetzaren kontzeptuan jasotzen dituzten kopuruei buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileek lankidetzaren kontzeptuan jasotzen dituzten kopuruei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, honako galdera hauek egin ditu, Nafarroako Gobernu

Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Nazioarteko adopziorako entitate lankideek dituzten baliabide ekonomikoen artean, kontusail bat lankidetzarako da. 19. artikulua hauxe dio: "entitate lankidearen mantentzeari eusteko beharrezkoak diren gastuen zati proportzional bat kobratzen ahalko da (...), eta entitate horrek bestelako jarduera sozialak ere baldin baditu, portzentaje bat bakarrik sartzen ahalko da".

1. Gizarte Politiketako Departamentuak ba al du zenbateko horien berri eta ba al dauka horien gaineko egiaztagarri eta justifikazio idatzirik?

2. Lankidetzaren kontzeptuarekin eskuratutako zenbatekoak berdinak al dira Foru Komunitatean lan egiten duten entitate lankide guztietan?

3. Gizarte Politiketako Departamentuaren ustez, lankidetzara bideratzen diren zenbateko horiek egokiak eta arrazoizkoak al dira?

Iruñean, 2014ko abuztuaren 21ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, Foru Administrazioa Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileez baliatzearen arrazoiei buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, Foru Administrazioa Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileez baliatzearen arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Erregelamenduen babesean, honako galdera hauek egin ditu, Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

1. Foru Administrazioak zergatik jotzen du nazioarteko adopziorako entitate lankideengana, nafarrei zerbitzu hori berak eskusibotasunez eman beharrean?

2. Noiz ezarri zen lankidetzaren sistema hori? Zer metodologia baliatzen zen lankidetzaren misto horren aurretik?

Iruñean, 2014ko abuztuaren 21ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileek bete behar dituzten oinarri arautzaileei eta sinatzen dituzten hitzarmenen edukia-ri buruzkoa.

BIKENDI BAREA Aiestaran JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileek bete behar dituzten oinarri arautzaileei eta sinatzen dituzten hitzarmenen edukia-ri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestararako, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako

galdera hauek egin ditu, Nafarroako Gobernuako Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

1. Gizarte Politiketako Departamentuak eta adopzioaren esparruan eskumena duten haren menpeko erakundeek ba al dakite zer-nolako edukia duten nazioarteko adopziorako entitate lankideek adingabearen jatorrizko herrialdearekin sinatzen dituzten hitzarmenek?

2. Gizarte Politiketako Departamentuak ezarri eta nazioarteko adopziorako entitate lankideek bete beharreko oinarri arautzaileen barruan:

2a. Erakunde eskudunek kontuan hartzen al dituzte Hagako Hitzarmenaren arabera adingabeari jatorrizko herrian eskaini behar dizkioten bermeak?

2b. Ba al daki zein diren nazioarteko adopziorako entitate lankideek lan egiten duten herrialdeetan baliatzen dituzten irizpideak, eta horiei buruzko idatzizko ziurtapenik ba al du?

Iruñean, 2014ko abuztuaren 21ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, Nazioarteko Adopzioarako Entitate Laguntzaileek arauak eta entitate horiek kreditatuta daudeneko jarduerak betetzeari buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, Nazioarteko Adopzioarako Entitate Laguntzaileek arauak eta entitate horiek kreditatuta daudeneko jarduerak betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Nafarroako Gobernuko

Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 11. artikulua arautzen ditu Nafarroako Autonomia Erkidegoko nazioarteko adopzioarako entitate lankideen eskubide eta betebeharrak. Uztailaren 6ko 842/2007 Ebazpenaren eta abuztuaren 14ko 1450/2009 Ebazpenaren bidez, berriz, entitate lankideak kreditatzeko lehiaketa publikoen deialdiak ebatzi ziren.

1. Nafarroako Autonomia Erkidegoko nazioarteko adopzioarako entitate lankideek zorrotz bete al dituzte Foru Komunitateko Administrazioako organo eskudunak ematen dituen arau, jarraibide eta gidalerroekin bat haien kreditazioaren xede diren arau eta jarduerak?

2. Nafarroako Autonomia Erkidegoko nazioarteko adopzioarako entitate lankideek erraztu al dituzte Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak egiten dituen ikuskaritza eta kontrol jarduketak?

Iruñean, 2014ko abuztuaren 21ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, adingabearen jatorrizko herrialdeetako arau- edo lege-aldaketek Nazioarteko Adopzioarako Entitate Laguntzaileek egiten duten lanean dauzkaten ondorioei buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, adingabearen jatorrizko herrialdeetako arau- edo lege-aldaketek Nazioarteko Adopzioarako Entitate Laguntzaileek egiten duten lanean dauzkaten ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

1. Adingabeen jatorrizko herrialdeetan izandako arau eta lege aldaketek zer eragin eta ondorio izan dituzte, Nafarroako Autonomia Erkidegoko

Nazioarteko Adopzioarako Entitate Lankideek egiten duten lanari dagokionez?

2. Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuaren ustez, adingabeen jatorrizko herrialdeetan sustatutako aldaketek justifikatu egiten al dituzte Foru Komunitatean nazioarteko adopzioaren arloan gertatutako atzerapenak?

Iruñean, 2014ko abuztuaren 21ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, Nazioarteko Adopzioarako Entitate Laguntzaileen eginkizunei eta jarduketari buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, Nazioarteko Adopzioarako Entitate Laguntzaileen eginkizunei eta jarduketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Nazioarteko adopzioarako entitate laguntzaileen gaikuntza arautzen duen ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretuak haxe dio VI. kapituluaren –Entitate laguntzaileen eginkizunak eta jarduketak–:

14.b) artikulua: “Jasotzen diren nazioarteko adopzio kasuak tramitatzeke eskabideen erregistroz arduratuko da. Kasuak sarrera ordenaren

arabera inskribatuko ditu, egokitasun ziurtagiria jaso zen eguna paratuz.

e) Espedientea osatzen duen dokumentazioa igorriko du, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak luzatutako jarraipeneko konpromisoa eta egokitasun ziurtagiria barne direla, adin txikikoaren jatorrizko herrialdean daukan ordezkariari, eta horren berri emanen dio aipatu erakundeari”

15.a) artikulua: “Adopzio espedientearen dokumentazioa igortzea, bere ordezkariaren bidez, herrialde hartako agintaritza publiko eskudunari, edo hango agintariak horretarako kreditatzen duten erakunde pribatuari, adopzio eskabideak haren aurrean tramitatzeke baimena baldin badu.

e) Aipatu aurreasignazio hori Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari jakinaraztea, haren onspenari buruzko ebazpena eman dezan.

f) Aurreasignazioa eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren erabakia interesatuei jakinaraztea, kasuko adin txikikoari buruz dauden datu guztiak emanen eta adin txikiko horren adopzioa onar dezaten eskatuz.

k) Interesatuei jakinaraztea noiz joan daitezkeen adin txikikoaren jatorrizko herrialdera, adopzioaren tramiteak burutzera.

Galderak:

1. Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuak ziurtasunez al daki nazioarteko adopzioarako eskabideen hurrenkera arau eta lege aldaketen arabera errespetatu ote den?

2. Nafarroako Gobernuako Gizarte Politiketako Departamentuak ziurtasunez al daki adopziorako eskabideen hurrenkera arau eta lege aldaketen arabera errespetatu ote den Nafarroako Autonomia Erkidegoko Nazioarteko Adopziorako Entitate Lankideetan?

3. Nafarroako Gobernuako Gizarte Politiketako Departamentuaren ustez, egokiak eta arrazoizko-

ak al dira nazioarteko adopziorako eskabideak Nafarroako Autonomia Erkidegoko Nazioarteko Adopziorako Entitate Lankideetan tramitatzeke epeak, erregistratzen direnetik prozesua bukatu arte?

Iruñean, 2014ko abuztuaren 21ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, onetsitako lege-aldaketak Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileei aplikatzeari buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, onetsitako lege-aldaketak Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileei aplikatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Nafarroako Gobernuako Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen 75. artikulua haxe zioen bere jatorrizko testuan, 2005. urtekoan:

“75. artikulua. Lehentasunak adopzio nazionalen eta ezaugarri bereziak dituzten adingabeak. 1. Adopzio nazionalen lehentasuna izanen dute seme-alabarik ez duten pertsona edo familiek, ezaugarri bereziak dituzten adingabeendako izan ezik. 2. Foru lege honi dagokionez, honakoak dira ezaugarri bereziak dituzten adingabeak.

– Tratamendu kronikoa behar duen ezgaitasun edo gaixotasun larria duten adingabeak.

– Osasun txostenaren arabera ezgaitasun bat garatzeko aukera asko dituzten adingabeak, gaur egun horrelakorik ez badute ere.

– Anai-arreben taldeak.

– Bi urte baino gehiagoko adingabeak.

– Porrot egin duen aurreko beste adopzio bat izan duten adingabeak.

– Foru Komunitateko administrazioeko organo eskudunak adoptatuak izateko proposaturiko adingabeak, baina gurasoek horrelakorik onartu gabe, eta, beraz, prozesu judizial luze bat aurreikusten denean.

– Beren garapenean eragina duten edo besteei lotzeko gaitasuna eragozten duten arazo emozionalak dituzten adingabeak.

– Beste autonomia erkidegoetatik etorritako adingabeak.”

Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legeak, zeina 2013ko martxoaren 28tik 2014ko apirilaren 15era bitarte egon baitzen indarrean, haxe dio:

“Xedapen iragankor bakarra. Araubide iragankorra.

Foru lege hau indarrean sartzerakoan adoptatzeko zerrendetan inskribatuta zeuden pertsonak kontserbatuko dute momentu horretan zeukatzen lehentasun-hurrenkera.”

Aurten onetsi da martxoaren 14ko 3/2014 Foru Legea, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustape-

nari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea aldatzen duena. Foru legean honako artikulua hau ageri da:

«Artikulu bakarra.

Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legearen xedapen iragankor bakarra aldatzen da. Hona testu berria:

“Xedapen iragankor bakarra. Araubide iragankorra.

Foru lege honek indarra hartzean Nafarroako Adopzioen Erregistroan inskribaturik dauden eta Nafarroako Foru Komunitateko organo eskudunak adopzioarako egokitasun psikologikoa eta soziala aitortu dien seme-alabarik gabeko familiek bi urtera bitarteko haurrak adoptatzeko lehentasunari bi urtez eutsiko diote, foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

Epe hori amaitzen denean, edo familia horietakoren bati adingabeen adopzioarako eskaintzaren espediente artxibatzen bazaio indarra duen antolamenduan aurreikusitako arrazoiengatik, Nafarroako Adopzioen Erregistroan eskaintza inskribatu den egunaren arabera zehaztuko da lehentasun-hurrenkera.”

Galderak:

1. Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren

5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea onetsi izanak aldaketarik eragin al zien adopzioarako legea indarrean sartu zen egunean zerrendan zeuden pertsonen, une horretan zerrendan zeukaten lehentasun-tokiari dagokionez?

2. Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 14ko 3/2014 Foru Legeko xedapen iragankor bakarrek baldintzak betetzen zituzten seme-alabarik gabeko familiek lehentasuna edukitzean jarraitu al dute bi urtera bitarteko adingabeak bi urteko epean adoptatzeko, foru legea Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen egunetik aitzina?

3. Martxoaren 14ko 3/2014 Foru Legea indarrean sartu ostean, adopzioarako zerrenden ordenean aplikatzeak nola eragin die adina zehaztu gabe adingabeen adopzioa edo bi urtetik gorako adingabeak adoptatzearen aldeko hautua egin zuten familia seme-alabadunei nahiz seme-alabarik gabekoei?

4. Arestian azaldutako lege-aldaketa horiek guztiak aplikatu al dira Nafarroako Autonomia Erki-degoko Nazioarteko Adopzioarako Entitate Lankide-etan?

Iruñean, 2014ko abuztuaren 21ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Enrique Martín de Marcos jaunak foru parlamentari karguari uko egitea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Enrique Martín de Marcos jaunak foru parlamentari karguari uko egiteko aurkeztutako idazkiari buruz, honakoa ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea Enrique Martín de Marcos jaunak aurkeztutako idazkia, non foru parlamentari izaerari uko egiten baitio, zeina lortu baitzuen

martxoaren 28ko 1/2011 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan (2011ko martxoaren 29ko 61. zenbakiko NAO), Alderdi Popularraren (PP) hautagaitzaren barruan.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularraren eleduna aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak aurkezturiko idazkia, zeinaren bidez jakinarazten baita parlamentu-talde horren eledunaren aldaketa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakinarazi zaiola Ana Beltrán Villalba andrea izendatu dela Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko eledun.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

